



Arartekoaren 2013ko otsailaren 25eko ebazpena, jazotako gorabeheraren ostean, Oiolako urtegitik datozen hiri-hornidurarako uren kalitatearen kontrolaren jarraipenari buruzkoa.

Aurrekariak

1. Ezpitsua plataforma ekologistak kexa-idazki bat aurkeztu zuen erakunde honen aurrean. Horren bidez, Oiolako urtegitik datozen kontsumorako uren kalitatearen egoeraren berri eman ziguten; izan ere, beste gertakari baten ondorioz, hornikuntza berriro eten behar izan zuten.

Oiolako urtegitiko urek Barakaldoko biztanleak urez hornitzen dituzte. HCH hauteman ondoren, 2010eko urrian, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Zuzendaritzak uren kalitatea kontrolatzeko protokolo bat onetsi zuen udal kontsumo sarean pestizida hori sartzea saihesteko.

2. 2012ko azaroaren 18an Osasun Publikoko Zuzendaritzak ezarri zuen protokoloa aktibatu zen berriro ere, uraren sarrerari lotutako emari segurua (50 litro segundo bakoitzeko) gainditu baitzen. Data horretatik aurrera, urtegitiko ura ez da biztanleen kontsumorako erabili.
3. Gorabehera horren ondorioz, plataformak Osasun Publikoko Zuzendaritzari eskatu dio neurriak har ditzan Oiolako urtegia behin betiko ur-hornikuntza saretik kanpo uzten dela bermatzeko.

Halaber, dagokion mailan, urtegia kudeatzeko aurreikusitako erakundeen arteko batzordearen deialdia egitea egokitzat jo du.

Bestalde, elkarteak jakinarazi digu urtegiaren inguruan egindako uraren lagin analitikoaren gaineko datuak aditzera ematea beharrezkoa dela. Protokoloa aktibatu zenetik, elkarteak informazio hori aldiari behin jaso izan du baina azaldu digu, administrazio bakoitzari haren eskumeneren eremuaren barruan bildutako datuak helarazteko eskatu behar izatea zaila dela. Horregatik, aukera hau interesgarritzat jo du: administrazio bakarrak bere esku dauden datu analitiko guztiak aditzera eman ditzala, datu horiek nork bildu dituen alde batera utzita. Modu berean, Oiolako urtegiaren hainbat gunetan analitiken





inguruan bildutako datuak sailaren web orrialdearen bitartez ofizioz zabaltzeko aukera ere mahai gainean jarri dute.

4. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailera jo genuen berriro ere, alderdi horien gaineko informazioa bidal ziezagun. Gure informazio eskaerari erantzunez, sailak plataformari bidalitako erantzunen berri eman zigun.
5. Jakinarazpen horien bitartez, urtegiko uren kalitateari dagokionez eskuragarri dauden kontrol analitikoaren emaitzen berri eman zien. Hornikuntza eteteko protokoloaren aktibazioari dagokionez, abian jarri da berriro ere segurtasuneko emaria gainditu delako baina ez da segurtasun neurri gisa ezarri zen HCH isomeroen kontzentrazioa gainditu. Sailaren ustez, Oiolarako HCHren ondoriozko kutsaduraren jarraipena egiteko batzordea osatzeko deialdia ez da premiazkoa. Hala ere, azpibatzerde teknikoak aurreikusi du otsailaren erdialdean bilera egingo duela eta Ezpitsua elkarteak bertan parte hartuko du.

Egin diren kontrol analitikoaren gaineko informazioari dagokionez. Bai URAk, bai Osasun Sailak informazio horren berri ematen du aldian behin. Modu berean, Osasun Saila lanean ari da informazioaren zabaltzea hobetze aldera. Horretarako, tresna informatikoak erabiliko dira kontsumo-uren jasotzei buruzko informazioa biltzeko eta helarazteko. Dena den, denbora beharko da funtzionatzen hasi aurretik.

6. Erreklamazioaren deskribatutako kontuak eta administrazio horren erantzuna baloratu ostean, erakunde honek kexa-espeditante horren inguruan atera dituen ondorioen berri eman nahi dizugu.

Gogoetak

1. Erreklamazioaren xedeak Osasun Sailak plataformak 2012ko azaroan jazotako gorabeheraren ostean aurkeztutako idazkiei emandako erantzuna du hizpide. Idazki horien bidez, plataformak Oiolaratik datozen kontsumo-uren kalitatea kontrolatzeko neurri berriak hartzeko eskaera egin zuen. Horretarako, HCHren ondoriozko kutsaduraren kontrolaren jarraipena egiteko organoa osatzeko deialdia abian jar dezaten eskatu du, bai eta uraren kontrol analitikoaren inguruan zabaltzen den informazioa hobetzeko ere.
2. Ararteko erakundeak aurretik ere kontu horri lotuta esku hartu izan du, arartekoaren 2012ko martxoaren 18ko ebazpenaren bidez hain zuzen ere.





Ebazpenak Oiolako urtegiko uraren kalitatea bermatzeko hartutako neurrien gainekoa zen.

Bertan, Osasun eta Kontsumo Sailak, osasun agintari gisa, eta gainontzeko administrazio erantzuleek, batera duten beharra gogora ekarri genuen, hau da, elkarteari eta interesa duten beste pertsoneri Oiolako urtegiko uraren kalitatearen kudeaketari buruzko informazio zehatza, nahikoa eta eguneratua emateko beharra. Era berean, Osasun eta Kontsumo Sailari jakinarazi genion parte hartzeko mekanismoak eta informaziorako sistemak eskaini behar dituela kontsumitzeko uren kalitatearen kudeaketari lotuta. Kalitatearen kontrolari dagokionez, protokoloan ezarritako parametroak egiaztatzeko eta horien betetzea justifikatzeko beharra mahai gainean jarri genuen. Horrez gain, Oiolako urtegiaren HCH dagoen ala ez ebaluatu behar da, lehentasunezko substantzia arriskutsua den heinean, eta eskumenerako administrazio hidrauliko eta ingurumenekoarekin batera, isuri hori eten edo kentzera zuzendutako neurriekin jarraitu behar da.

Ondoren, erreklamazioa aurkeztu zuen elkarteak eskumena duten administrazioekin bilera bat egiteko aukera proposatu zuen, urtegi horretako uren kalitatearen kontrolari buruzko zenbait kontu argitze aldera. 2012ko irailaren 18an bilera bat egin zen eta Ezpitsua elkarteak, Uraren Euskal Agentziak eta Osasun Publikoko Zuzendaritzak parte hartu zuten. Aipatu behar da bi sailek jarrera positiboa erakutsi zutela informazioa emateari dagokionez eta plataformak adierazitako zalantzak eta oharrak argitzeari dagokionez.

3. Horren ostean, hau da, uraren emariaren handitzearen ondorioz, 2012ko azaroan gertatu zen gorabehera eta gero, Oiolako urtegia ez da erabili biztanleak urez hornitzeko. Ebazpen honetan, azken gertakari horren ostean, Oiolako urtegitik datozen hiri-hornikuntzarako uren kalitatea kontrolatzeko burututako jarduerak aztertu dira. Plataformak errepikatu du neurri osagarriak hartu behar direla Oiolako urtegitik gizakien kontsumorako ura hartzean datzan erabilera mugatu dezaten.

Osasun Sailak emandako erantzunean plataformari uraren kontrol analitikoaren gainean bidalitako erantzunak jaso dira. Modu berean, azpibatzorde teknikoaren bilera bat aurreikusi da, kutsaduraren jarraipena egitea eta, HCH urtegiko uretatik desagertu zenetik ia urte bat pasa ostean, egoera baloratzea helburu duena. Bilera horretan ere plataformak parte hartuko du. Halaber, kontsumorako uren jasotzei buruzko informazioa biltzea eta zabaltzea errazte aldera, zenbait hobekuntza proposatuko direla jakin dugu.





Horregatik, helarazitako eta espedientean bildutako informazioa ikusita, honako ondorioa atera dugu.

Ondorioa

Osasun Sailak plataformak 2012ko azaroan jazotako gertakariari lotuta egin dituen informazio eskaera guztiak erantzun ditu.

Erantzunean kontrol analitikoaren emaitzak jaso dira eta, uraren kalitatearen egoera baloratze aldera, bilera tekniko baten deialdia proposatu da. Plataformak ere bilera horretan parte hartuko du.

Zentzu horretan, Osasun Sailak bitartekoak abian jarri ditu gure aurreko ebazpenean aipatu genituen parte hartzeko mekanismoak eta informazioa eskuratzeko mekanismoak ziurtatzeko.

Gauzak horrela, bilera horretan (aipatutako gainontzeko alderdiekin batera) Oiolako uretan zein urtegiko biotan HCHrik ez dagoela bermatzeko beharrezkoak diren neurriak baloratu beharko lirateke.

Uren kalitateari buruzko informazioa eskuratzeari dagokionez, Osasun Sailak jasotako informazioa helarazten jarraitu behar du, baita bildutako datuak behar bezala ulertzen direla bermatzeko eta lortutako balioei emaitzen zalantza aplikatzeko nahikoa den laguntza teknikoa ematen ere.

Neurri horien barruan, interesgarria izango litzateke Oiolako urtegian eta Basatxuko Edateko Uren Araztegiko sarreran eta irteeran egindako kontrol analitikoaren zabalkunde egokia ziurtatzea, Osasun Saileko web orrialdean argitaratuz hain zuzen ere <http://www.osakidetza.euskadi.net/>.

